



Luzera, edukiera eta masa

Luzera, edukiera eta masaren unitateek **NEURRI SISTEMA HAMARTARRA** osatzen dute; horrek esan nahi du unitate batetik beste batera pasatzeko **beti bider 10 edo zati 10** egin behar dela. Unitate horiek guztiak eskala hauetan ordenatu daitezke:

	1.000.000	100.000	10.000	1.000	100	10	1	0'1	0'01	0'001
LUZERA				km	hm	dam	m	dm	cm	mm
EDUKIERA				kl	hl	dal	l	dl	cl	ml
MASA	t	q	mag	kg	hg	dag	g	dg	cg	mg

Oso garrantzitsua da unitate-eskala hauek buruz ikastea, eskuinerantz zein ezkererantz, unitate batetik bestera joateko zenbat jauzi egin behar duzun jakiteko.

Adibidez: **Metrotik zentimetrora** joateko, **2 jauzi eskuinerantz** egin behar dira.
Gramotik kilogramora joateko, **3 jauzi ezkererantz** egin behar dira.

Ohartu unitate batetik beste batera pasatzeko:

- **Eskuinerako** jauzi bakoitzean, x 10 **biderkatu** beharko dugu.
- **Ezkererako** jauzi bakoitzean, : 10 **zaitu** beharko dugu.

Adibidez:

- 2 kilogramo gramotara pasatzeko = $2 \times 10 \times 10 \times 10 = 2 \times 1000 = 2000$ g
- 70 zentimetro metrotara pasatzeko = $70 : 10 : 10 = 70 : 100 = 0,7$ m

Ikusi duzunez masa-eskalan unitate gehigarri bat dago, **TONA (t)**; izan ere, funtsezko masa unitatea, gramo, baita kilogramo ere, unitate txikiegiak direnez **TONA** oso erabilgarria da. **TONA BATEK 1000 kg** balio du.

Tona eta kilogramoaren artean beste bi unitate daude, kintala (q) eta miriagramoa (mag), gaur egun oso gutxi erabiltzen direnak eta horregatik eskalan kolore zurbilago batekin agertzen direnak. Komenigarria da unitate hauek eskalan daudela jakitea, baina ez da beharrezkoa buruz ikastea, ezta erabiltzea ere.

Neurri bat bi modutan adieraz daiteke:

- Era sinplea, unitate bakarra erabiliz. Adibidez: **152 cm**
- Era konplexua, hainbat unitate erabiliz. Adibidez: **1 m 5 dm 2 cm**

Luzerak, edukierak eta masak neurtzeko hainbat tresna erabiltzen dira, hala nola:

LUZERA					
	Zinta metrikoa edo flexometroa	Erregela	Kalibrea	Laser neurgailua	Telefono mugikorren aplikazio batzuk
EDUKIERA					
	Botilak eta latak	Pitxer eta koilara graduatuak	Probetak, matrazak... laborategietan. erabiltzen diren ontziak		
MASA					
	Balantzak y baskulak				

Ikasi buruz unitateen eskalak. Errepikatu behin baino gehiagotan erraz esan arte. Menderatzen dituzula ziur zaudenean, sakatu **"ESKALAK IKASI DITUT"** dioen botoian, eta gero **"¡TERMINADO!"** dioen botoian, fitxa hau itxi eta hurrengora joateko.

ESKALAK IKASI DITUT